



124. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2018ko azaroaren 14an, arratsaldeko zazpitan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Oier Korta Esnal jna.

Bertaratutako zinegotziak: Gotzon Embil Unanue jna.
Cristina Vicente Iciar and.
Ane Arregi Urbietta, and.
Alex Oliden Antia jna.
Arritokieta Iribar Egaña and.
Josu Arrieta Arriola jna.
Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.
Ione Muguerza Egaña jna.
Miren Pilare Galfarsoro Madariaga and.
Arritokieta Marañon Basarte and.

Ez bertaratuak M. Cruz Alvarez Aparicio and
Jon Joseba Iraola Rezola jna.

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre



EGUNEKO AZTERGAIK

1.1.- UDALAREN 2018KO 10, 11, 12 ETA 13. KREDITU ALDAKETAREN KONTU EMATEA.

929/2018 ALKATE ERABAKIA

GAIA: kreditu aldaketa, kreditu transferentzia

"Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2018-KALD-000010-00 (2018KKRT0004) zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

| Kapitulua | Izena | Egungo kredituak | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|-----------|-------|------------------|------------|--------------------|
|-----------|-------|------------------|------------|--------------------|



| Kapitulua | Izena | Egungo kredituak | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|----------------|---|------------------|-----------------|--------------------|
| 1 | PERTSONAL GASTUA | | | |
| 2 | ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK. Turismo garapena | 18.000,00 | 4.500,00 | 13.500,00 |
| 3 | INTERESAK | | | |
| 4 | TRANSFERENTZI ARRUNTAK | | | |
| 5 | KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK | | | |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | | | |
| 7 | KAPITALEZKO TRANSFERENTZIAK | | | |
| 8 | FINANTZ AKTIBOAK | | | |
| 9 | FINANTZ PASIBOAK | | | |
| GUZTIRA | | 18.000,00 | 4.500,00 | 13.500,00 |

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

| Kapitulua | Izena | Egungo kredituak | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|----------------|---|------------------|-----------------|--------------------|
| 1 | PERTSONAL GASTUA | | | |
| 2 | ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK. Olarro eguna | 35.200,00 | 4.500,00 | 39.700,00 |
| 3 | INTERESAK | | | |
| 4 | TRANSFERENTZI ARRUNTAK | | | |
| 5 | KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK | | | |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | | | |
| 7 | KAPITALEZKO TRANSFERENTZIAK | | | |
| 8 | FINANTZ AKTIBOAK | | | |
| 9 | FINANTZ PASIBOAK | | | |
| GUZTIRA | | 35.200,00 | 4.500,00 | 39.700,00 |

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzatari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran"

ALKATEA



940/2018 ALKATE ERABAKIA

GAIA: kreditu aldaketa: kreditu gaikuntza, kreditu zabalgarriak

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 2018-KALD-000011-00 (2018KKGA0002) zenbakiduna.

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako foru arauak 31. artikuluan 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

| Kap. | Izena | Euroak |
|------------------------------------|---------------------------------|-----------------|
| 2 | ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK | 7.302,00 |
| GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA | | 7.302,00 |

SARRERAK

| Kap. | Izena | Euroak |
|-----------------------------|-------------------------|-----------------|
| 3 (SARRERAK) | TASAS Y OTROS INGRESOS. | 7.302,00 |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | | 7.302,00 |

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailera Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.



961/2018 ALKATE ERABAKIA

GAIA: kreditu aldaketa, kreditu transferentzia

"Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2018-KALD-000012-00 (2018KKRT0005) zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|------------------------------|---|--------------------|-----------------|--------------------|
| 1 0300.481.334.00.01 2018 | KULTUR DIRU- LAGUNTZAK TALDEEI | 18.000,00 | 4.775,00 | 13.225,00 |
| 1 0300.219.336.00.01 2018 | ARTELANAK BERRITZEN JOATEKO PLANGINTZA | 3.000,00 | 3.000,00 | 0,00 |
| 1 1200.226.337.20.99 2018 | HAINBAT GASTU GAZTETXOLA | 7.000,00 | 1.519,60 | 5.480,40 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | 28.000,00 | 9.294,60 | 18.705,40 |

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

| Partida (*) | Izena | Hasierako | Gehikuntza | Amaierako |
|-------------|-------|-----------|------------|-----------|
|-------------|-------|-----------|------------|-----------|



| | | kreditua | | kreditua |
|------------------------------|-----------------------------|------------------|-----------------|-------------------|
| 1 0300.226.334.00.99 2018 | KULTUR JARDUERAK | 95.000,00 | 7.775,00 | 102.775,00 |
| 1 1200.625.337.20.01 2018 | GAZTETXOLARAKO ALTZARIAK | 0,00 | 1.519,60 | 1.519,60 |
| | | | | |
| | GUZTIRA | 95.000,00 | 9.294,60 | 104.294,60 |

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran"

ALKATEA

956/2018 ALKATE ERABAKIA

GAIA: Kreditu aldaketa, kreditu gehigarriak

Ikusita kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2018-KALD-0000013-00 (2018 KCRE0005) zenbakidun espedientea.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako txostena. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|------------|---------------------------------|-------------|
| 2 | ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK | 9.680,00 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 59.300,08 |



| | |
|-----------------------------|-----------|
| KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA | 68.980,08 |
|-----------------------------|-----------|

FINANTZAKETA

| Kapitulua | Izena | Zenbatekoa |
|----------------|----------------------|------------------|
| 8 (SARRERAK) | ACTIVOS FINANCIEROS. | 68.980,08 |
| GUZTIRA | | 68.980,08 |

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkatea

1.2.- 2018KO 14 ETA 15. KREDITU ALDAKETEN BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2018-KALD-0000014, eta 15 zenbakidun espedienteak onartzeko proposamena".

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak 22. eta 33.artikuluetan.

Gaia aztertu ondoren,

IRIZPENA

Lehenengoa.- 2018ko azaroaren 7an ospatzen den batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

.- 2019 urterako konpromiso-kredituak sortzea:
5 0100.601.165.00.02 (IDAE, argiterian inbertsioa) : 719.467,52.
Finantzaketa aurrezki garbia

.- Era berean, eta beti ere, konpromiso-kredituak onartzen badira, aurtengo 1 0100.601.165.00.02 partida baliogabetu. Konpromiso-kredituak ez badira onartzen baliogabetze honek ez du eraginik izango



Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak: 5 (2 EAJ-PNV, 2 EH BILDU eta 1 ES-EV)
Aurkako botoak:
Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

Zumaian, 2018ko azaroaren 7an
Ogasun Batzordeko Lehendakaria
Marikruz Alvarez

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11boto (4 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV;)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 14 eta 15. kreditu aldaketak behin behineko izaeraz onartzen dira; jendaurreko agerraldian ezarriko dira gutxienez 15 lan eguneko epean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

2.- Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, hartutako erabakia onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

1.3.- 2018KO 16. KREDITU ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

“Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2018-KALD-0000016-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.



Gaia aztertu ondoren,

IRIZPENA

Lehenengoa.- 2018ko azaroaren 7an ospatzen den batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|------------------------------------|---|-------------------|
| 3 | INTERES LEGALA (erkibe ezjabetzea) | 109.001,46 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK (erkibe ez jabetzea) | 623.353,5 |
| 9 | Epe luzerako maileguen amortizazioa | 2.971,93 |
| KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA | | 735.326,89 |

FINANTZAKETA

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|----------------|---|-------------------|
| 8 (SARRERAK) | ACTIVOS FINANCIEROS (DIRUZAINZA GERAKINA) | 735.326,89 |
| GUZTIRA | | 735.326,89 |

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak: 5 (2 EAJ-PNV, 2 EH BILDU eta 1 ES-EV)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

Zumaian, 2018ko azaroaren 7an
Ogasun Batzordeko Lehendakaria
Marikruz Alvarez



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11boto (4 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV;)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 16. kreditu aldaketa behin behineko izaeraz onartzen da; jendaurreko agerraldian ezarriko dira gutxienez 15 lan eguneko epean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

2.- Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, hartutako erabakia onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

1.4.- AURREKONTU EGONKORTASUNA ETA GASTU ARAUA EZ BETETZEAREN ONDORIOZ TXOSTENAREN BERRI EMATEA.-

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2018. URTEKO AURREKONTUA (16. Kreditu aldaketa egin ondoren, kreditu gehigarriak), Baina kasu honetan 14 eta 15. Kreditu aldaketak ez dira kontuan hartu, oraindik tramitazioan daudelako. Konrromisu kredituak eta baliogabetze aldaketak dira.

Aldakaketa horiek ez dute txosten hua asko aldatuko, gainera txosten honek ere aurrekoen jarraipena du, non aurrekontua dagoen bezala gauzatuz gero, ez ditu ez egonkortasuna eta ez gastu arau betetzen.

ARAUDI APLIKAGARRIA

* 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

* 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

* Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017ko azaroaren 7an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.



FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATE ZERRENDA:

1. ZUMAIA
2. ZUMAIAKO KIROL PATRONATUA

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izatea espero da 2018. urtean:

Defizita: 4.030.193,81

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2018. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2018. urterako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2018-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izatea espero da, 2017. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: **%16,23**

Sarrera arruntak: 13.451.281,50.

Zorra: Bankuekin maileguak: 1.799.192,54 – 122.218,93 – 219.950,5 (urtarrilean amortizatu zena, etxe salmentarengatik): 1.457.023,11

Mankomunitatearekin zorra, Urteta zabortegiaren kudeaketa: 727.334,14 (27.974,39*26). Zor hau gaur egun 4. Kapitulan dago, mankomunitateari egiten zaion ekarpen bezala, baina, berez, zorra da. Hurrengo aurrekontuetan 9. Kapitulan aurreikustea hobe.

Aurreikusitako zorra, 2018/31/12an: 2.184.357,25

Kalkulua egiteko, 2017-12-31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.



Emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2018. urtean aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2018. urterako aurreikusitako amortizazioak.

2018. urterako ezarritako helburua zor bizia %75 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2018. urterako helburua.

Gastuaren araua

2018. urtean gastu konputagarria eta gastuaren muga honako hauek izan dira:

Gastu konputagarria: 16.939.331,35 (Erkibeko interesak ez dira kontuan hartu)

Gastuaren muga: 11.780.405,93

Diferentzia: 5.158.925,42

DGrekin finantzatutako obligazioak (aurrekontu guztia bete ezker):
3.756.170,35

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen 2018. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta gastu arauaren arloetan 2018. urterako ezarritako helburuak. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua eta gastu araua betetzea, eta 2020an zor bizia sarrera arrunten %70 edo txikiagoa izatea. Plan hori Udaltzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkezten denetik kontaktzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita.

Kontu-hartzailea

2.- HIRIGINTZA.-

2.1.- PROPOSAMENA:

2.1.1.- ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIOEN17 HA-ARTADIKO 17.1 EGIKARITZE-UNITATEAREN XEHETASUN-AZTERKETA ERABATEKO DEUSEZTAPENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11boto (4 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV;)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Gaia tratatzea erabakitzen da

ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 17 HA-ARTADIKO 17.1 EGIKARITZE-UNITATEAREN XEHETASUN-AZTERKETA ERABATEKO DEUSEZTAPENA ADIERAZTEKO PROPOSAMENA

AURREKARIAK

1.- 2017ko abuztuaren 16ko 604/2017 zk. duen Alkatetza Dekretuaz Zumaia udalaren plangintzako arau subsidiarioen barruan, JOSU FERNANDEZ DE ARROIABE MARKAIDEN sustatutako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen xehetasun-estudioari hasierako onospena eman zitzaien familia bakarreko bi etxebizitza eraikitzeko lizentzia eman baino lehen, planeamenduak ezarritako baldintzak bete ahal izateko

2.- Xehetasun azterketaren berri 2017ko Irailaren 11ko Hirigintza batzordean berri eman zen.

3.- Indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera, horren berri eman zaio inguruko eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (207ko Abuztuaren 28) eta zabalkunde gehien duen lurraldeko egunkari batean iragarkia argitaratuz 20 eguneko epean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita.

4.- Jendaurrean izan zen epean ez da alegaziorik aurkeztu.

5.- Irizpena jaso dezan JOSU FERNANDEZ DE ARROIABE MARKAIDEN sustatutako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen Xehetasun Azterketa aurkeztu da.

6.- Zumaia udalaren udalbatzak, 2017ko urriaren 9an egindako ezohiko bilkuran, 17 HA-ARTADIKO 17-1 EGIKARITZE UNITATEAREN XEHETASUN -AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA erabaki zuela.

7.- 2018ko martxoaren 15eko ezohiko batzaraldian Osoko Bilkurak proposamen hau onartu zuen:
Isabel eta Raquel Gorriti Amor andereek aurkeztutako Berraztertze errekursoa zati batean baiestea eta Artadiko 17 HA-EU 17.1-eko xehetasun azterketa erabat deusez den heinean, behin betiko onarpenera eman zion administrazio egintza ofizioz berrikustea.

8.- Ikusirik 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen Xehetasun Azterketari behin-betiko onarpenera eman zion administrazio-egintza ofizioz berrikusteko ezinbesteko tramitea



gauzatu dela, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari espedientea bidaltzearena, alegia, eta 2018ko Azaroaren 6an 149/2018 Irizpena eman duela erabateko deuseztasuna berretsiz.

PROPOSAMENA

Ondorioz, (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean ondorengo proposamena jartzea proposatzen dut erabakiak udalbatzan bertaratuko zinegotzien gehiengo sinplea beharko duelarik:

- 1.- JOSU FERNANDEZ DE ARROIABE MARKAIDek sustatutako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen Xehetasun Azterketari behin-betiko onarpena erabat deuseza deklaratzeko.
- 2.- Behin betiko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11boto (4 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV;)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Josu Fernandez de Arroiabe Markaidek sustatutako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen Xehetasun Azterketaren behin-betiko onarpena erabateko deuseztapena onartzen da.

2.- Behin betiko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabakitzen da

3.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA.-

Lehen bozkatu egingo dugu, onartzen diren edo ez tratatzeko bi proposamen hauek:

3.1.1.- "EUSKARA TXANPAN" ZUMAIAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2022 ONARTZEA, BIDEZKO BADA



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11boto (4 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV;)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. Proposamenak tratatzea erabakitzen da.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11boto (4 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV;)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. "EUSKARA TXANPAN" Zumaiako Plan Estrategikoa 2018-2022 onartzen da.-

3.1.2.- ZUMAIAKO UDALAREN ERABILERA PLANA 2018-2022 ONARTZEA, BIDEZKO BADA

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11boto (4 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV;)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. Zumaiako Udalaren Erabilera Plana 2018-2022 onartzen da.-



Zumaia Udala

2018IAKU0008-A18/7096

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta berrogei minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria